BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4488

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 2koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuak, 2011ko apirilaren 20an, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (IKT deialdia). Agindu hau 2011ko maiatzaren 10ean argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du aipatu aginduaren 14. artikuluak:

14. artikulua.– Balorazio-batzordea.

(...)

2.– Balorazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, edo bere ordezkoa, batzordearen buru izango dena.

b) Foru-administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duten sailetako teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo bere ordezkoa.

c) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako EBPNren jarraipenerako arduraduna, edo bere ordezkoa.

d) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna, edo bere ordezkoa.

e) Euskararen Aholku Batzordeko kide bat.

f) IKT alorreko aditu bat.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat, edo bere ordezkoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarrena.– Honako hauek dira 2011ko apirilaren 20ko Aginduaren 14.2 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Iván Igartua Ugarte jauna, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango da. Ordezkoa, Begoña Muruaga Laca andrea, Euskara Sustatzeko zuzendaria.

b) Gotzon Egia Goienetxea jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuburua. Ordezkoa, Joxean Amundarain Iturrioz jauna, Euskararen Normalkuntza Ataleko burua.

c) Ane Crespo Calvo andrea, EBPNren jarraipenerako arduraduna. Ordezkoa, Edurne Basoa González andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna.

d) Araceli Diaz de Lezana Fernandez de Gamarra andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna. Ordezkoa, Igor Goirizelaia Ziardegi jauna, Kultura Saileko Informatika Zerbitzuko koordinatzailea.

e) Jokin Gorozika Bidaurratzaga jauna, Euskararen Aholku Batzordeko kidea.

f) Iratxe Esnaola Arribillaga andrea, IKT alorreko aditua.

g) Elene Etxezarreta Etxeberria, EBPNren jarraipenerako teknikaria, eta Batzorde honen idazkaria. Ordezkoa, Jone Aboitiz Legarra andrea, EBPNren jarraipenerako teknikaria.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MARÍA LOURDES AUZMENDI AYERBE.